

Pertsona Kooperatiboaren Eskalaren garapena eta baliozkotzea: bertsio laburra (Koophezi-i-S)

Oxel Azkarate-Iturbe¹, Aitor Aritzeta², Rosa Mindeguia³, Jose Ramon Vitoria¹

¹Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien
Fakultatea, MU

²Oinarrizko Prozesu Psikologikoen Garapena Saila, Psikologia Fakultatea, UPVEHU

³Enpresen Antolakuntza Saila, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, UPVEHU

Ikerlan honen helburua da 16 eta 22 urte bitarteko ikasleen pertsona kooperatiboaren (PK) profila neurtzeko Koophezi-i eskalaren bertsio laburra baliozkotzea. Lagina Euskal Herriko 14 hezkuntza-zentrotan jaso da, eta unibertsitate zein ikastetxeetako 2.290 ikaslek (% 48,6 emakumezkoak, % 51,4 gizonezkoak) parte hartu dute. Lehen ikerketan, Koophezi-i eskalak PKaren profila neurtzeko proposatzen dituen 10 faktoreak eta 37 itemak erabili dira. Horretarako, lau berrespen-eredu ezberdin probatu dira. Bigarren ikerketan, edukiaren baliozkotasunaren analisia egin da. Ondorioz, Koophezi-i-S eskala baliozkotua sortu da, 7 faktore eta 21 item dituen. Bukatzeko, eskala berriaren mugak eta inplikazioak eztabaidatu dira.

GAKO-HITZAK: Pertsona kooperatiboaren profila · Eskalaren garapena · Berrespenerako faktore-analisia · Hezkuntza-neurketa.

Development and validation of the Cooperative Person Scale – Short version (Koophezi-i-S)

In this paper we describe the validation of a short version of the Koophezi-i scale to measure the Cooperative Person (CP) profile of 16-22 year-old students. The sample comprised 2.290 students (48.6% female, 51.4% male) from 14 university faculties and high schools in the Basque Country. In our first study, we use the original 10 factors and 37 items measured in the Koophezi -i CP profile. Four different confirmatory models were tested. In the second study, a content validity analysis was performed. As a result, a validated Koophezi-i-S scale was generated, which comprised 7 factors and 21 items. The limitations and implications of this new scale are discussed.

KEY WORDS: Cooperative Person profile · Scale development · Confirmatory factor analysis · Educational assessment.

1. Sarrera

Kooperazioa faktore garrantzitsua da ikaskuntza-prozesuei zein egungo gizarte-erronkei aurre egiteko; beraz, helburu garrantzitsua da hezkuntza-sistema askotan (Johnson & Johnson, 2014; Valtonen *et al.*, 2021). Hainbat ikerketak aipatu dute beharrezkoa dela kooperazioarekin zerikusia duten gaitasunak, jarrerak eta balioak aztertzea, bereziki ikasketa kooperatiboko testuinguruetan (adibidez, Bonk & Cunningham, 1998; Filippou *et al.*, 2021; Penuel *et al.*, 2020). Testuinguru horietan, tresna fidagarriak eta kulturalki egokituak behar dira kompetentziek XXI. mendeko herritarrengan duten eragina neurtzeko (Care, 2018; Griffin *et al.*, 2012). Hori dela eta, Europako esparruan, *Espainiako Estatuko Aldizkari Ofizialak (Boletín Oficial del Estado, 2015)* tresna batzuk sortzea eta erabiltzea gomendatzen du, ikaskuntzan eskuratutako oinarriko gaitasunak baliozkotasunez eta fidagarritasunez ebaluatzeko, kooperazioa funtsezko jokabidetzat jotzen baita etorkizuneko gizarteentzat.

Azken hamarkadan ikerketa ugari egin dira herritarrak etorkizuneko erronketara hobeto egokitzeko beharrezkoak diren ezaugarriak identifikatzeko. Ikaskuntzarako, lanerako edo herritartasunerako beharrezkoak diren ezaugarri horiekin erlazionatzen dira, batetik, kompetentzia bigunak (*soft skills*), hala nola gaitasun sozialak edo talde-lana (Heckman & Kautz, 2012; Rasipuram & Jayagopi, 2020; Tseng, *et al.*, 2019); bestetik, kompetentzia giltzarriak (*key skills*), hala nola lidergoa, talde-lana edo komunikazioa (Bray *et al.*, 2020); edota, azkenik, kompetentzia sozioemotionalak, hala nola enpatia edo entzute aktiboa (Edwards-Schachter *et al.*, 2015; Kautz *et al.*, 2014; Selznick & Mayhew, 2018; Zhou, 2017). Beraz, «kooperatzen jakitea», «enpatia», «asertibitatea» eta era horretako ezaugarriak funtsezkoak dira aipatutako kompetentzietarako eta pertsona bat kooperatibotzat hartzeko.

Kooperazioaz gain, aurrerabide sozialak ikuspegi eta parte-hartze komunitario, eraldatzaile eta berritzaile bat behar du arazo sozial, kultural, ekonomiko eta ekologikoak konpontzeko eta haietan balioa sortzeko justizia sozialaren ikuspegitik (Levy & Patz, 2015; Shoreman-Ouimet & Kopnina, 2015; Yu *et al.*, 2021). Bide horretan, unibertsaltasunaren balioek rol garrantzitsua jokatu dezakete beste batzuekiko edo egoera ahulagoan bizi direnekiko ulermen-maila handiagoa erakusteko orduan (Schwartz, 2012). Ezaugarri horiek eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak (International Cooperative Alliance, 1995) deskribatutako nazioarteko balio kooperatiboak (adibidez, demokrazia, berdintasuna eta elkertasuna) erakustea beharrezkoa izango litzateke pertsona kooperatibo batentzat (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2019; Imaz & Ipiña, 2020).

Pertsona bat hezkuntza-testuinguruan kooperatibotzat jotzeko behar diren kompetentziak zehazteko helburuarekin, pertsona kooperatiboaren (PK) definizioa eta tresna baten sorkuntza eta baliozkotzea aztertu dira literaturan (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2019; Azkarate-Iturbe, 2021). Proposamenaren ideia nagusia zera da, hezkuntza-testuinguruan garrantzitsua dela pentsamendu eta praktika kooperatiboa gidatzen duten gaitasunak, jarrerak eta balioak aztertzea eta lantzea, bai garapen pertsonalerako, bai ongizate komunean oinarritutako garapen soziokomunitario baterako. Funtsatutako Teoriaren metodoaren bidez garatutako ikerketa baten

arabera (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2020), PK bat da gizakia eta jendartea kontuan hartzen dituzten balio eta jarrera indibidualak, kooperatiboak eta komunitarioak dituena; burujabea, elkarkidetzan diharduena eta ekintzaile soziokomunitarioa: elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatzen duena eta egiten duena. Hala, gaitasun, jarrera eta balio zehatzak dituen pertsona bat da PKa, eta hiru ardatz nagusi bereizten dira: pertsonala (burujabea), erlazonala (kooperatiboa-kolaboratiboa) eta soziokomunitarioa (ekintzailtza soziokomunitarioa). Dimentsio horiek bereziki garrantzitsuak dira hezkuntza- edota gizarte-testuinguruetan, konpetentzia kooperatiboak arrakasta izan dezan.

PKa konstruktua konplexua den heinean, agerikoa da hura neurtzea ez dela lan erraza. Eraikuntzaren eta definizioaren konplexutasunak beharrezkoa egiten du eskala espezifiko bat garatzea haren ezaugarri nagusiak biltzeko. Literaturan, eskala ugari daude PKaren profilaren atal zehatzak aztertzeko baliagarriak izan daitezkeenak. Esate baterako, neurtzeko erabil daitezke *Grit Scale*, *Generalized Self-Efficacy Scale*, *Creative Self-efficacy Scale* edo *Enterprise Self-efficacy Scale* (adibidez, Duckworth & Quinn, 2009; Schwarzer & Jerusalem, 1995; Tierney & Farmer, 2002; Zhao *et al.*, 2005). Oinarritzko balio pertsonalak azter daitezke *Schwartz Values PVQ*ekin (adibidez, Paez & De-Juanas, 2015; Schwartz, 2003), edota portaera eta balio prosozialak *Prosocial Behaviour Scale (ECP)* edo *Prosocial Reasoning Objective Measure (PROM)* erabilita (adibidez, Auné *et al.*, 2016; Carlo *et al.*, 1992; Mestre *et al.*, 2002). Gaitasun sozialak neurtzeko erabil daitezke *Social Skill scale*, *Social Skills Rating System* edo *Social Skills Improvement System-Rating Scales* (adibidez, Ferris *et al.*, 2001; Gresham & Elliott, 1990, 2008), eta, gaitasun sozioemozionalak aztertzeko, *Inventory to Measure Socio-emotional Competences (ICSE)* (adibidez, Mikulic *et al.*, 2015). Lantaldearen ezaugarriak azter daitezke *Campion*, *Medsker* eta *Higgs*-ek (1993) proposatutako eskalarekin, eta ekintzailtza sozialerako jarrerak aztertzeko erabil daitezke *The Social Enterprise Antecedents Scale (SEAS)* edo *The Social Entrepreneurs Quotient Scale (SEQ)* tresnak (adibidez, Hockerts, 2015; Jilinskaya-Pandey & Wade, 2019). Hala ere, ez da bideragarria eskala horiek erabiltzea PKaren profila modu zehatzean eta fidagarrian neurtzeko. Gainera, tresna horiek, PKaren definizioarekin erlazonatuta egon daitezkeen arren, ez dira PK baten ezaugarri espezifikoetan oinarritzen.

Koophezi-i eskala baliozkotuak hezkuntza-inguruneetako ikasleen PKaren profila neurtzen du (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2019). Eskala dimentsioaniztun bat da, 3 dimentsio orokor dituena eta 17 faktore biltzen dituena. 10 faktorek zuzenean neurtzen dute PKaren profila (autoefikazia, moral barneratua, beharrian kognitiboa, helburuen interdependentzia, enpatia kognitiboa, komunikazio asertiboa, justizia soziala, onginahia, ekintzailtza soziala eta gizakiaren ikuspegi positiboa). Gainerako 7 faktoreek PKaren profilaren aurkako gaitasunak, balioak eta jarrerak aztertzen dituzte. Beraz, eskalaren bertsio laburra garatzeko prozesutik baztertuak izan dira. Jatorritzko eskalak 65 item ditu, eta 6 puntuko Likert eskala eskaintzen du (1 = erabat desadostas, 6 = erabat adostas) ikasleen autopertzepzioak jasotzeko. Koophezi-i galdetegiak fidagarritasun- eta baliozkotasun-maila egokiak ditu. 17 faktoreen azken soluzio faktorialak bariantzaren % 63,41 azaltzen du, eta elementuen pisu faktoriala .562 eta .852 artean kokatzen da.

Alabaina, Koophezi-i eskala luzea da. Horrek zaildu egiten du hezkuntza-erakundeetan edo beste eskala batzuekin batera erabiltzea. Hori dela eta, ikerlan honen helburua bertsio laburrago bat baliozkotzea da: Koophezi-i-S. Helburu hori lortzeko, bi ikerketa egin dira. Lehenengo ikerketan, eskalaren bertsio laburtuaren faktore-egitura eta fidagarritasuna aztertu dira. Bigarren ikerketan, berriz, eskala laburtuaren baliozkotasuna aztertu da.

2. Metodoa

2.1. Parte-hartzaileak eta prozedurak

Guztira 2.290 ikaslek (% 48,6 emakumezkoak, % 51,4 gizonezkoak) (M adina = 17.89 urte, DT = 2.04) parte hartu dute bi ikerketetan. Ikasle guztiek taldeka erantzun dituzte galdetegiak, beren ikasgeletan online galdetegi bat erabilia. Parte-hartzaileak bi hezkuntza-mailatako ikasleak izan dira (% 40,3 bigarren hezkuntzakoak, n = 923; % 59,7 goi-mailako hezkuntzakoak, n = 1.367), Euskal Herriko 10 hezkuntza-zentrotan (publikoak eta itunpekoak) eta unibertsitate bateko 4 fakultatetan matrikulatutakoak. Datuak 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan jasoak dira. Mondragon Unibertsitateko datuak biltzeko eta aztertzeko jarraibide etikoen arabera egin da ikerketa. Kontuan hartu da datuen babeserako eskakizun prozesala (American Educational Research Association *et al.*, 2014).

3. Lehenengo ikerketa

Aurrez esan bezala, lehen ikerketa honen helburua Koophezi-i eskalaren bertsio laburtuaren faktore-egitura eta fidagarritasuna aztertzea izan da. Lau berrespen-eredu probatu dira horretarako. Lehenengo proban, faktore bakarreko gisa aztertu da, PKaren profila konstruktua bakartzat eta barrutik koherentetzat hartuta. Bigarren proban, bi faktoreko eredua aztertu da, gizakiaren alderdi indibiduala eta soziala kontuan hartuta. Hiru faktoreko aukera ere aztertu da, jatorrizko PKaren hiru ardatzetan oinarrituta (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2020). Honako hauek dira hiru ardatz horiei dagozkien faktoreak: pertsonala (autoefikazia, moral barneratua, beharizan kognitiboa), erlazonala (helburuen interdependentzia, enpatia kognitiboa, komunikazio asertiboa) eta soziokomunitarioa (justizia soziala, onginahia, ekintzaitza soziala, gizakiaren ikuspegi positiboa). Azkenik, kontuan izanik jatorrizko eskala dimentsio anitzekoa dela (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2019), behartu gabeko irtenbide bat ere aztertu da.

3.1. Tresnak

Pertsona kooperatiboaren profila neurtzeko, Koophezi-i tresna erabili da (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2019). Azterketa egiteko, Koophezi-i tresnan PKaren profila neurtzen duten 10 faktoreak eta 37 itemak sartu dira analisisian. Ikerlan honen sarreran aurkeztu dira tresnari buruzko datuak.

3.2. Datuen analisia

Eskalaren dimentsionalitatea aztertzeko, berrespenerako zenbait faktore-analisi (*Confirmatory Factor Analyses, CFA*) egin dira egitura-ekuazioaren modelizazioa erabilita, MPlus-ekin. Estimazio-metodoari dagokionez, *Maximo Probable Robust (MLR)* erabili da. Normaltasunik ez zegoela susmatu denean, berrespenerako faktore-analisiari aplikatu zaio estimazioa. Estimatzaila hori gomendatzen da honelako datuak espero direnean: (1) laginketa-tamaina handia dagoenean, (2) faktoreen adierazleak eskala jarraituan neurtu direnean, eta (3) adierazleen banaketa oso normala ez denean (ikus 1. taula) datuen banaketaren emaitzetarako (Brown, 2015). Egokitasun-indizeak hauek izan dira: *Comparative Fit Index (CFI)*, *Tucker-Lewis Index (TLI)* eta *Root Media Square Error of Approach (RMSEA)*. CFIren eta TLIren kasuan, 0.90etik eta 0.95etik gorako balioek balio onargarria eta bikaina adierazten dute, hurrenez hurren. RMSEArako, 0.08tik beherako balioek gai onargarria adierazten dute, eta 0.06tik beherako balioek, berriz, egokia (Hu & Bentler, 1999; Brown, 2015).

Eredu estrukturalak egokitze-indizeen ontasun-irizpideetan oinarritu dira. Eredurik onena aukeratu da, eta azken ereduaren aldaketa-indizeak eta faktoreen kargak aztertu dira. Hautaturiko faktore-soluzioaren barne-trinkotasuna *Cronbach's alpha* bidez kalkulatu da.

3.3. Emaitzak

1. taulan, ebaluatutako eredu guztien indize egokiak aurkezten dira. Bertan ikus daitekeenez, zazpi faktoreko ereduak bakarrik eman du emaitza egokia. Beste hiru ereduak (bat, bi eta hiru dimentsiokoak) baztertu egin dira egokitze-indizeengatik.

1. taula. Ebaluatutako ereduaren indize egokiak.

	χ^2 (p)	CFI	TLI	RMSEA	% 90 CI
Faktore bakarreko eredia	25383,75 (,001)	.43	.39	.10	.09-.10
Bi faktoreko eredia	9546,29(,001)	.56	.52	.10	.10-.10
Hiru faktoreko eredia	6214,49 (,001)	.65	.61	.09	.09-.09
Aske - Zazpi faktoreko eredia	533,88 (,001)	.97	.96	.03	.02-.03

Proposatutako eredu guztiak alderatu ondoren, zazpi faktoreko eredia aztertu da, faktore bakoitzari dagozkion aldagaien eta faktoreen karga kontuan hartuta. Azken ereduak hiru item ditu faktore bakoitzeko, eta karga onargarriak item guztietan (.56tik .87ra). 2. taulan, azken ereduaren faktore-kargak aurkezten dira.

2. taula. Koophezi-i-S eskalaren azken ereduaren faktore-kargak.

Itema	Karga faktoriala	M	SD	s	k
Autoefikazia					
Konfiantza daukat ditudan gaitasunak direla-eta gai naizela ezusteko gertaerak modu efikazean kudeatzeko.	0.681	4.70	.85	-.74	1.35
Nire gaitasun eta baliabideei esker, ustekabeko egoerak gaindi ditzaket.	0.801	4.76	.80	-.54	.84
Datorrena datorrela, oro har, badituz gaitasunak egoerak kudeatzeko.	0.707	4.68	.81	-.55	.76
Beharrian kognitiboa					
Ardura errazak baino, pentsatzea eskatzen duten lan-ardura konplexuak nahiago ditut.	0.759	4.00	1.13	-.35	-.00
Gustuko dut ardura hartzea asko pentsatzea eskatzen duten egoerei aurre egiteko.	0.81	4.08	1.09	-.35	-.00
Estimulatu egiten nau nire bizitza aurre egin beharreko erronkaz (edo buruhaustez) beteta egoteak.	0.571	4.06	1.15	-.35	-.11
Enpatia kognitiboa					
Eztabaidatzen ari naizenean, bestearen lekuan jartzeko ahalegina egiten dut zerbait esan aurretik.	0.799	4.40	1.17	-.65	.15
Norbaitekin haserretzen naizenean, ahalegina egiten dut haren lekuan jartzeko.	0.821	.27	1.18	-.59	.03
Erraza egiten zait gauzak bestearen ikuspuntutik ikustea.	0.695	4.33	1.07	-.41	-.05
Komunikazio asertiboa					
Gustuko ez dudan zerbait badago, esaten dut.	0.796	4.73	1.06	-.73	.24
Zerbait gustuko ez dudanean, erraza egiten zait beste pertsonen nire iritzia adieraztea.	0.876	4.39	1.22	-.55	-.29
Erraza egiten zait beste pertsonen esatea zer pentsatzen dudana haiez.	0.663	3.74	1.28	-.11	-.64
Helburuen interdependentzia					
Ikasgelako proiektu batean nire taldekideekin lan egiten dudanean, harreman estua izaten saiatzen naiz, nire helburuetara iristeko.	0.566	4.67	0.99	-.77	.96
Ikasgelako proiektu batean lanean nire helburuak lortzeko, nire taldekideen beharra daukat.	0.649	4.59	1.09	-.67	.30
Ikasgelako proiektu batean nire lana modu kolektiboan, taldean, egiten dut, nire helburuak lortzeko.	0.772	4.72	.97	-.77	.81
Justizia soziala					
Uste dut guztiok aukera berak izan behar genituzkeela bizitzan zehar.	0.621	5.33	1.01	-1.72	2.98
Gustatuko litzaidake pertsona guztiak justiziaz tratatuak izatea, ezagutzen ez ditudan pertsonak barne.	0.716	5.52	.86	-2.18	2.43
Niretzat, garrantzitsua da zaugarritasun (ahul, kaltebera) egoeran bizi diren pertsonen aukera guztiak izatea osoki garatzeko.	0.797	5.38	.87	-1.53	2.45
Ekintzailtza soziala					
Gustuko dut gizartearentzat onurak izango dituzten proiektu berriak hastea.	0.832	4.80	1.04	-.75	.51
Beti nago prest, onura sozialak izango dituzten proiektu berriak hasteko.	0.869	4.62	1.10	-.63	.17
Ez dut beldurrik ekimen sozial berriak hasteko.	0.656	4.36	1.13	-.40	-.16

3.4. Eztabaida

Lehenengo ikerketa honen helburua PKaren profila neurtzeko Koophezi-*i* eskalaren bertsio labur bat sortzea izan da. Emaitez argi adierazten dute dimentsio anitzeko eredua dela egokiena (ikus 1. taula). Zazpi faktoreko eredua berretsi da, eta Koophezi-*i* eskalaren (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2019) dimentsio anitzeko logikan oinarritutako egokitzapen optimo baten alde egin. Prozesu horretan, hiru faktore ezabatu dira (moral barneratua, onginahia eta gizakiaren ikuspegi positiboa), ez dutelako balio psikometriko egokirik erakutsi, eta itemen karga-balioak ezarritako atalasearen azpitik daudelako. Koophezi-*i*-S bertsio laburra estatistikoki esanguratsua da ($2666 = 533,88$, $p .0001$), eta doikuntza egokia du: *Comparative Fit Index* (CFI = .97), *Tucker-Lewis Index* (TLI = .96). Batez besteko errore-hurbilketa ere eskaintzen du (RMSEA = .03, % 90 CI = .02 -.03).

4. Bigarren ikerketa

Eskala laburtuaren konstruktibaliokotasuna probatzeko, alde batetik, ekintzaitzaren edo ekintzaitza sozialaren esparruko ikerketak hartu dira kontuan. PKaren definizioak eta ezaugarritzeak antzekotasunak ditu ekintzaitza sozialaren definizioekin (Peredo & McClean, 2006; Brouard & Larivet, 2010; Silva *et al.*, 2016). Clamp eta Alhamis-en arabera (2010), ekintzaitza sozialaren ikuspegi komunitarioa kooperatiboaren antzekoa izan daiteke, eta, ondorioz, PKaren profilarekin erlazionatuta egon daiteke (Azkarate-Iturbe *et al.*, 2020). Alde horretatik, Jilinskaya-Pandey eta Wade-k (2019) sormen, etika, aldaketarako irekitasun, arriskuak hartze, autonomia eta lorpenerako motibazio-maila handiagoa izatearekin lotzen dute ekintzaitza soziala altuagoa izatea. Beste alde batetik, Hockerts-ek (2015) enpatiari, betebeharrak moralari, autoefikaziari eta laguntza sozialen faktoreei ematen die garrantzia, ekintzaitza sozialaren testuinguruan. Nicolás eta Rubio-k (2018) egindako beste ikerketa baten arabera, ekintzaile soziala hezkuntza-maila altuko pertsona bat da, eta aukeren zein autoefikaziaren pertzepzio-maila handia du. Horregatik, harreman positiboa espero da PKaren profilaren eta ekintzaitza-portaerarekin lotutako gaitasunen artean, zeinak neurtzen baitira Ekinez-Aritu eskalaren faktoreen bidez (Zubizarreta & Aritzeta, 2015).

Ekinez-Aritu eskalak (Zubizarreta & Aritzeta, 2015) goi-mailako hezkuntzako ikasleen ekintzaitzarekin lotutako jarrerak eta balioak neurtzen ditu, eta euskal unibertsitatearen testuinguruan baliozkotua da. Eskala horrek 6 faktore ditu: erantzukizuna, berrikuntza, elkartasuna, arriskuak hartzea, kooperazioa eta erresilientzia. Galdetegia 24 itemek osatzen dute, eta 6 puntuko Likert eskala proposatzen du (1 = erabat desados, 6 = erabat ados). Balio egokiak ditu barne-sentotasunean (*Cronbach's alpha* koefizientea .82) eta test birtest fidagarritasunean (.83), baita baliotasun-ebidentzia egokiak ere. Hona hemen item baten adibide bat: «*Considero que los problemas de mi grupo son mis problemas*». Aplikazio-testuingurutik eta populaziotik gertu egoteagatik eta eraikitako PKaren definizioarekin izan dezakeen harremanagatik aukeratu da Ekinez-Aritu eskala.

Espero da Koophezi-i-S tresnaren autoefikazia eta beharrian kognitiboa faktoreak positiboki lotuta egotea erantzukizunarekin, arriskuak hartzearekin eta erresilientziarekin. Era berean, Koophezi-i-S tresnaren helburuen interdependentzia, enpatia kognitiboa eta komunikazio asertiboa faktoreak kooperazioarekin lotuta egotea espero da, eta Koophezi-i-S tresnaren justizia soziala eta ekintzailtza soziala faktoreak, berriz, elkartasunarekin eta berrikuntzarekin.

Eskala laburtuaren konstruktibaliokotasuna probatzeko, bestalde, PKaren dimentsioen eta nortasun-ezaugarrien arteko erlazioa aztertu da. Kontuan hartu da giza portaera sozialetan dauden desberdintasun indibidualak funtsezkoak direla nortasun-ezaugarri askotarako, batez ere kanporakoitasuna (*extraversion*) eta atsegintasuna (*agreeableness*) (Matthews, 2020). Norabide horretan, Koole-k eta beste batzuek (2001) aipatzen dute, oro har, atsegintasuna modu positiboan lotuta dagoela kooperazioarekin. Volk-ek eta beste batzuek (2011) atsegintasunari egiten diote erreferentzia, balio prosozialekin batera, kooperaziorako lehentasun indibidualen adierazle gisa. Proto-k eta beste batzuek (2019) efektu natural, esanguratsu baina iragankor bat hauteman dute kooperazio-tasetan, atsegintasuna eta kontzientzia adierazten dituen; eta adimenak jokabide kooperatiboan izan ditzakeen epe luzeko ondorio handi eta positiboak aitortu dituzte. Gonzalez-Mulé-k eta beste batzuek (2014) adierazten dute batez besteko kanporakoitasun-maila altuek lotura positiboa dutela banakako laguntza-portaerekin, talde kooperatiboan arauen mediazio-efektuaren ondorioz. Beste ikerketa batzuek nortasunaren aldagaiak aztertzen dituzte ikasleak errendimendu akademikoaren arabera bereizteko orduan (Dings & Spinath, 2021). Azkenik, aipagarria da estrabertsio-maila altua duten ikasleak, beren atsegintasuna dena delakoa izanda ere, ezagunagoak direla ikaskideen artean, eta horrek, aldi berean, errendimendu akademiko hobetu dezakeela (Thiele *et al.*, 2018).

Eysenck Personality Revised-Breviated EPQR-A eskalaren gaztelaniazko bertsioa erabili da ikerlan honetan (Francis *et al.*, 1992; Sandin *et al.*, 2002). Eskala hori lau faktorek osatzen dute: estrabertsioa, neurotizismoa, psikotizismoa eta zintzotasuna. Lehenengo hiru faktoreek nortasunaren ezaugarriak neurtzen dituzte; azkenak, berriz, gezurra esateko joera. Erantzun-eskala dikotomiko bat da, bai-ez aukerak eskaintzen dituena. Guztira 24 item ditu. Galdera sorta horrek balio egokiak eman ditu baliozkotasunean eta fidagarritasunean. Hona hemen item baten adibidea: «¿Alguna vez has deseado más ayudarte a tí mismo/a que compartir con otros/as?». EPQR-A —unibertsitateko ikasleentzat sortua— aukeratu da PKaren profilak nortasunarekin izan dezakeen harremana aztertzeko. Horregatik, espero da Koophezi-i-S tresnaren helburuen interdependentzia, enpatia kognitiboa, komunikazio asertiboa, justizia soziala eta ekintzailtza soziala faktoreek EPQR-A eskalaren estrabertsioarekin lotzea (Francis *et al.*, 1992; Sandin *et al.*, 2002). Gainera, espero da neurotizismoak eta psikotizismoak alderantzizko harremana izango dutela Koophezi-i-Sk neurtzen dituen faktoreekin.

4.1. Datuen analisia

Bigarren azterketa honetan, Koophezi-i-S tresnaren baliozkotasuna aztertu da. Eskalaren balio bateragarriaren ebidentziak lortzeko, Pearsonen korrelazio-koefizienteak kalkulatu dira SPSS V.24 erabiliz (Meneses *et al.*, 2013). Analisisetarako, Ekinez-Aritu eta EPQR eskalen faktoreak erabili ziren, Koophezi-i-S eskalarekin batera.

4.2. Emaitzak

3. taulan, Koophezi-i-S eta Ekinez-Aritu eskalen faktoreen arteko korrelazio-koefizienteak aurkezten dira. Emaitzek korrelazio esanguratsua dituzte Koophezi-i-S eskalaren faktoreen eta Ekinez-Arituren faktoreen artean, korrelazio moderatu eta sendoak. Ekinez-Arituren erresistentzia, elkartasuna, arriskuak hartzea eta kooperazioa faktoreek dute korrelaziorik sendoena Koophezi-i-Sren faktoreekin. Ekinez-Aritu tresnaren elkartasuna faktoreak korrelazio altueneko puntuazioa du Koophezi-i-S eskalaren justizia sozialarekin (.425, $p < .01$) eta, maila baxuagoan, ekintzailtza soziala faktorearekin (.281, $p < .01$). Erresilientzia positiboki lotuta ageri da autoefikaziarekin (.339, $p < .01$) eta beharrizan kognitiboarekin (.316, $p < .01$). Ekintzailtza sozialak ere harreman apalagoa du (.273, $p < .01$). Arriskua hartzeko faktoreak korrelazio ertaina du autoefikaziarekin (.314, $p < .01$) eta komunikazio asertiboarekin (.309, $p < .01$), eta erlazio apalagoa beharrizan kognitiboarekin (.254, $p < .01$). Ekinez-Arituren kooperazioa positiboki lotuta dago helburuen interdependentziarekin (.310, $p < .01$) eta ekintzailtza sozialarekin (.293, $p < .01$). Neurri baxuagoan, kooperazioa justizia sozialarekin (.259, $p < .01$), autoefikaziarekin (.230, $p < .01$) eta enpatia kognitiboarekin (.224, $p < .01$) erlazionatu da.

3. taula. Koophezi-i-S eta Ekinez-Aritu eskaletaren faktoreen arteko Pearson korrelazioak.

	EKINEZ-ARITU Faktoreak					
	Erresilientzia	Elkartasuna	Arriskuak hartzea	Erantzukizuna	Kooperazioa	Berrikuntza
Autoefikazia	.339**	.143**	.314**	.284**	.230**	.178**
Beharrizan kognitiboa	.316**	.064*	.254**	.224**	.079*	.187**
Enpatia kognitiboa	.153**	.193**	.030 n.s	-.005	.224**	.060
Komunikazio asertiboa	.111**	.076*	.309**	.219**	.087**	.172**
Helburuen interdependentzia	.196**	.149**	.066*	.097**	.310**	.100**
Ekintzailtza soziala	.273**	.281**	.188**	.165**	.293**	.224**
Justizia soziala	.135**	.425**	.062	.212**	.259**	.064*

* $p < 0,05$; ** $p < 0,01$, n.s ez esanguratsua

4. taulan, korrelazio-maila baxuak ageri dira PK eta EPQR-Aren profila neurtzen duten faktoreen artean. Oro har, korrelazio esanguratsu gutxi ikusten dira. Estrabertsioarekin korrelazio moderatu-sendoa duen faktore bakarra komunikazio asertiboa da (.347, $p < .01$).

4. taula. Koophezi-i-S eta EPQR-A eskalen faktoreen arteko Pearson korrelazioak.

	EPQR-A faktoreak		
	Neurotizismoa	Kanporakoitasuna	Psikotizismoa
Autoefikazia	-.180**	.094**	.056
Beharrian kognitiboa	-.003	.008	.027
Enpatia kognitiboa	.078**	-.013	-.044
Komunikazio asertiboa	-.102**	.347**	.111**
Helburuen interdependentzia	-.035	-.011	-.015
Ekintzailtza soziala	.028	.130**	.005
Justizia soziala	.046	.057	-.097**

* $p < 0,05$; ** $p < 0,01$

4.3. Eztabaida

Koophezi-i-S tresnaren baliozkotasuna zehazteko egindako analisisien emaitzek askotariko korrelazio-mailak dituzte. Ekintzailtzari buruzko galdetegiari dagokionez (ikus 3. taula), PKaren profila neurtzen duten faktoreek korrelazio moderatu eta sendoak dituzte ekintzailtzarekin lotutako balioak eta jarrerak aztertzen dituzten faktoreekin. Korrelazioak esperotako mailara iritsi ez diren arren, emaitzek esperotako norabiderantz jo dute. Bi eskalen faktoreak PKaren teoriaren esparru logikoaren arabera erlazionatuta ageri dira. Hau da, PKaren profilaren alderdi pertsonalak, autoefikaziak eta beharrian kognitiboak harreman positiboak dituzte erresilientziarekin, arriskuak hartzearekin eta erantzukizunarekin. PKaren profilaren ardatz erlazionalean, helburuen interdependentzia Ekinez-Aritu eskalaren kooperazioarekin erlazionatu da. Era berean, autoefikaziak, enpatia kognitiboak eta justizia sozialaren balioek lotura positiboa dute kooperazioarekin.

Ardatz soziokomunitarioari dagokionez, justizia sozialak elkartasunarekin du korrelaziorik sendoena. Hala ere, harreman handiagoa espero zen berrikuntzaren aldagaiarekin. Emaitzek erakusten dute PKak eta ekintzailtza sozialak hurbiltasun teorikoa izan dezaketela. Hala, emaitzek PKaren ezaugarri indibidualen garrantzia adierazten dute; esate baterako, ekintzailtza sozialaren kasuan (Jilinskaya-Pandey & Wade, 2019). Ekintzailtza sozialarekin zerikusia duten faktoreetako batzuk Koophezi-i-S profilarekin ere egon daitezke erlazionatuta; adibidez, enpatiaren, autoefikaziaren eta gizarte-babesaren garrantzia (Hockerts, 2015), aukeren pertzepzio-maila altua eta hautemandako autoefikazia (Nicolás & Rubio, 2018). Hala ere, ekintzailtza sozialaren eta PKaren profilaren arteko harremana ulertzeko eta azaltzeko, beharrezkotzat jotzen da ikerketa gehiago egitea.

Koophezi-i-S eskalaren faktoreek ez dute esperotako korrelaziorik erakutsi EPQR-Aren nortasun-ezaugarriekin (ikus 4. taula). Beraz, PKaren profilaren aldagaiek ez dute zerikusi zuzenik nortasun-faktoreekin. Estrabertsioaren faktoreak korrelazioa du esperotako norabidean, nahiz eta faktoreen arteko korrelazioen maila ez den esperotakoa izan. Estrabertsioak ez du harreman estatistiko esanguratsurik PKaren ardatz erlazionalari dagozkion enpatia kognitiboarekin (-0.13 , n.s.) eta helburuen interdependentziarekin (-0.11 , n.s.). Komunikazio asertiboa ($.347$, $p < .01$) izan da estrabertsioarekin gehien lotu den faktorea. Hori azal liteke atsegintasunarekin duen antzekotasunagatik, beste ikerketa batzuetan kooperazioarekin lotzen den nortasun-faktoreetako bat delako (Matthews, 2020; Proto *et al.*, 2019; Volk *et al.*, 2011).

5. Ondorioak

Ikerketa honen helburua KOOPHEZI-i eskalaren bertsio labur bat garatzea eta baliozkotzea izan da, eta, horretarako, eskalaren emaitza psikometrikoak maximizatu eta baliozkotasun-maila egokiak lortu dira. 3 faktore ezabatu diren arren, Koophezi-i-S eskalak PKaren profila baliozkotasunez eta fidagarritasunez neurtzen jarraitzen du, faktore eta elementu gutxiagorekin. Horrela, Koophezi-i-S eskala baliozkotuak 21 itemekin eta zazpi faktoreekin neurtzen du PKaren profila: autoefikazia (orokorra), beharrian kognitiboa, komunikazio asertiboa, helburuen interdependentzia (kontzientzia), enpatia kognitiboa, ekintzailtza soziala eta justizia soziala (unibertsalismoa). Horretarako, Likert 6 eskala bat (1 = erabat desados eta 6 = erabat ados) proposatu da.

Koophezi-i-S eskala erabiltzeak ezagutza garrantzitsuak eman ditzake ikaskuntza-testuinguruak diseinatzeko, batez ere ikaskuntza-testuinguru kooperatiboetan, non gaitasun, jarrera eta balio kooperatiboak sustatzen diren eta ikasleengan adimen-marko kooperatiboak, jarrerak eta balioak sustatu nahi dituen hezkuntza-sistema kooperatibo batean oinarritzen diren. Neurketa-eskala fidagarria eta baliozkotu bat izateak aukera eman diezaieke ikastetxe eta unibertsitateei diagnostikoak egiteko, beren hezkuntza-programen eragina aztertzeke eta ikasleek bigarren hezkuntzan eta goi-mailako hezkuntzan duten esperientziaren diagnostiko jarraitua eta sistematikoa egiteko.

5.1. Mugak eta aurrera begirakoak

Hainbat muga hauteman dira ikerketa honetan. Lehenik, neurketa eraginkorra bada ere, PKa aztertzeke baliozkotutako bertsio laburrak ez ditu aurreko ereduaren faktore guztiak neurtzen. Horregatik, Koophezi-i eskalaren edo bertsio laburreko eskalaren aukeraketa hezkuntza-programaren eta ebaluazio-helburuen arabera aztertu behar da. Bigarrenik, etorkizuneko ikasketetan egokiagoa litzateke bertsio laburra beste eskala batzuekin erabiltzea; adibidez, ekintzailtza soziala edo *Big Five* nortasuna neurtzen dutenekin. Azkenik, ikerketa honetan erabilitako lagina Euskal Herrian jaso da; horregatik, interesgarria izango litzateke hurrengo ikerketetan beste herrialde batzuetako ikasleek parte hartzen duten ikerketa osagarriak egitea.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- American Educational Research Association, American Psychological Association & National Council on Measurement in Education (2014). *Standards for educational and psychological testing*. Author.
- Auné, Sofía; Abal, Facundo, & Attorresi, Horacio (2016). Diseño y construcción de una escala de conducta prosocial para adultos. *Revista Iberoamericana de Diagnóstico y Evaluación – e Avaliação Psicológica, RIDEP*, 42(2), 15-25. https://doi.org/10.21865/RIDEP42_15
- Azkarate-Iturbe, Oxel; Aritzeta, Aitor; Lezeta, Ion; Vitoria, Jose Ramon; Galleitebeitia, Iban; Sanchez, Ane, & Zubizarreta, Miren (2019). *Koophezi-i: Pertsona Kooperatiboaren Profila Ikasle Gazteetan Neurtzeko Eskala*. Mondragon Unibertsitatea. <http://ebiltegia.mondragon.edu/xmlui/bitstream/handle/20.500.11984/1813/Koophezi-i.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Azkarate-Iturbe, Oxel; Vitoria, Jose Ramon; Aritzeta, Aitor, & Galleitebeitia, Iban (2020). Persona Cooperativa en un contexto de transformación educativa y social. *REVESCO, Revista De Estudios Cooperativos*, 136, e71859. <https://doi.org/10.5209/reve.71859>
- Azkarate-Iturbe, Oxel (2021). *Pertsona Kooperatiboa profila ikasle gazteetan neurtzeko Koophezi-i tresnaren sorkuntza eta balioztatzea* [Doktorego-tesia]. Mondragon Unibertsitatea.
- Boletín Oficial del Estado* (2015). Orden ECD/65/2015, de 21 de enero, por la que se describen las relaciones entre las competencias, los contenidos y los criterios de evaluación de la educación primaria, la educación secundaria obligatoria y el bachillerato. <https://www.boe.es/boe/dias/2015/01/29/pdfs/BOE-A-2015-738.pdf>
- Bonk, Curtis Jay, & Cunningham, Donald (1998). Searching for learner-centered, constructivist, and sociocultural components of collaborative educational learning tools. In Curtis Jay Bonk & Kira King (argtz.), *Electronic collaborators: Learner-centered technologies for literacy, apprenticeship, and discourse* (25-50. or.). Lawrence Erlbaum Associates.
- Bray, Aibhín; Byrne, Philip, & O'Kelly, Michelle (2020). A Short Instrument for Measuring Students' Confidence with «Key Skills» (SICKS): Development, Validation and Initial Results. *Thinking Skills and Creativity*, 100.700. <https://doi.org/10.1016/j.tsc.2020.100700>
- Brouard, François, & Larivet, Sophie (2010). Essay of clarifications and definitions of the related concepts of social enterprise, social entrepreneur and social entrepreneurship. In Alain Fayolle & Harry Matlay (argtz.), *Handbook of research on social entrepreneurship* (29-56. or.). Edward Elgar Publishing Limited.
- Brown, Timothy (2015): *Confirmatory Factor Analysis for Applied Research*. Guilford publications.
- Campion, Michael. A; Medsker, Gina. J., & Higgs, A. Catherine (1993). Relations between work group characteristics and effectiveness: implications for designing effective work groups. *Personnel Psychology*, 46(4), 823-850. <https://doi.org/10.1111/j.1744-6570.1993.tb01571.x>
- Care, Esther (2018): Twenty-First Century Skills: From Theory to Action. In Esther Care, Patrick Griffin & Mark Wilson (argtz.), *Assessment and Teaching of 21st Century Skills: Research and Applications: Vol. 3*, (3-17. or.). Springer.
- Carlo, Gustavo; Eisenberg, Nancy, & Knight, George (1992). An Objective Measure of Adolescents' Prosocial Moral Reasoning. *Journal of Research on Adolescence*, 2(4), 331-349. https://doi.org/10.1207/s15327795jra0204_3

- Clamp, Christina. A., & Alhamis, Innocentus (2010). Social Entrepreneurship in the Mondragon Co-operative Corporation and the Challenges of Successful Replication. *The Journal of Entrepreneurship*, 19(2), 149-177. <https://doi.org/10.1177/097135571001900204>
- Dings, Alexander, & Spinath, Frank. M. (2021). Motivational and personality variables distinguish academic underachievers from high achievers, low achievers, and overachievers. *Social Psychology of Education*, 24, 1.461-1.485. <https://doi.org/10.1007/s11218-021-09659-2>
- Duckworth, Angela, & Quinn, Patrick. D (2009). Development and Validation of the Short Grit Scale. *Journal of Personality Assessment*, 91(2), 166-174. <https://doi.org/10.1080/00223890802634290>
- Edwards-Schachter, Mónica; García-Granero, Ana; Sánchez-Barrioluengo, Mabel; Quesada-Pineda, Henry, & Amara, Nabil (2015). Disentangling competences: Interrelationships on creativity, innovation and entrepreneurship. *Thinking Skills and Creativity*, 16, 27-39. <https://doi.org/10.1016/j.tsc.2014.11.006>
- Ferris, Gerald; Witt, L.A., & Hochwarter, Wayne. A. (2001). Interaction of social skill and general mental ability on job performance and salary. *Journal of Applied Psychology*, 86(6), 1.075-1.082. <https://doi.org/10.1037/0021-9010.86.6.1075>
- Filippou, Dimitra; Buchs, Céline; Quiamzade, Alain, & Pulfrey, Coroline (2021). Understanding motivation for implementing cooperative learning methods: a value-based approach. *Social Psychology of Education*, 1-40. <https://doi.org/10.1007/s11218-021-09666-3>
- Francis, Leslie; Brown, Laurence, & Philipchalk, Ronald (1992). The development of an abbreviated form of the Revised Eysenck Personality Questionnaire (EPQR-A): Its use among students in England, Canada, the U.S.A and Australia. *Personality and Individual Differences*, 13(4), 443-449.
- Gonzalez-Mulé, Erik; DeGeest, David; McCormick, Brian; Seong, Jee Young, & Brown, Kenneth (2014). Can we get some cooperation around here? The mediating role of group norms on the relationship between team personality and individual helping behaviors. *Journal of Applied Psychology*, 99(5), 988-999. <https://doi.org/10.1037/a0037278>
- Gresham, Frank. M., & Elliott, Stephen. N. (1990). *Social Skills Rating System*. Pearson Assessments.
- Gresham, Frank. M., & Elliott, Stephen. N. (2008). *Social Skills improvement System-Rating Scales*. Pearson Assessments.
- Griffin, Patrick; Care, Esther, & McGaw, Barry (2012). The changing role of education and schools. In Patrick Griffin; Barry McGaw & Esther, Care (argtz.), *Assessment and teaching of 21st century skills* (1-15. or.). Springer.
- Heckman, James. J., & Kautz, Tim (2012). Hard evidence on soft skills. *Labour Economics*, 19(4), 451-464. <https://doi.org/10.1016/j.labeco.2012.05.014>
- Hockerts, Kai (2015). The Social Entrepreneurial Antecedents Scale (SEAS): A Validation Study. *Social Enterprise Journal*, 11(3), 260-280. <https://doi.org/10.1108/SEJ-05-2014-0026>
- Hu, Li-Tze, & Bentler, Peter. M. (1999). Cutoff Criteria for Fit Indexes in Covariance Structure Analysis: Conventional Criteria versus New Alternatives. *Structural Equation Modeling*, 6, 1-55. <http://dx.doi.org/10.1080/10705519909540118>
- Imaz, Ainara, & Ipiña, Nagore (2020). *Berrikuntza prozesu baten mapa berria: eraldaketaren eredu. Etorkizuneko irakasleen formazioan eragiten*. Mondragon Unibertsitatea.

- International Cooperative Alliance (1995). *Statement on the cooperative identity*. International Cooperative Alliance. <https://ica.coop/en/whats-co-op/co-operative-identity-values-principles>
- Jilinskaya-Pandey, Mariya, & Wade, Jeremy (2019). Social Entrepreneur Quotient: An International Perspective on Social Entrepreneur Personalities. *Journal of Social Entrepreneurship*, 1-23. <https://doi.org/10.1080/19420676.2018.1541013>
- Johnson, David. W. & Johnson, Roger. T. (2014). Cooperative Learning in 21st Century. [Aprendizaje cooperativo en el siglo XXI]. *Anales de Psicología/Annals of Psychology*, 30(3), 841-851. <https://doi.org/10.6018/analesps.30.3.201241>
- Kautz, Tim; Heckman, James; Diris, Ron; Ter Weel, Bas, & Borghans, Lex (2014). *Fostering and Measuring Skills: Improving Cognitive and Non-cognitive Skills to Promote Lifetime Success*. Organization for Economic Co-operation and Development. <https://doi.org/10.3386/w20749>
- Koole, Sander. L; Jager, Wander; Van den Berg, Agnes. E; Vlek, Charles. A.J., & Hofstee, Willem. K.B. (2001). On the Social Nature of Personality: Effects of Extraversion, Agreeableness, and Feedback about Collective Resource Use on Cooperation in a Resource Dilemma. *Personality and Social Psychology Bulletin*, 27(3), 289-301. <https://doi.org/10.1177/0146167201273003>
- Levy, Barry. S., & Patz, Jonathan. A. (2015). Climate Change, Human Rights, and Social Justice. *Annals of Global Health*, 81(3), 310. <https://doi.org/10.1016/j.aogh.2015.08.008>
- Matthews, Gerald (2020). A Grand Challenge for Personality and Social Psychology: Competition, Cooperation, or Co-existence? *Frontiers in Psychology*, 11. 1.570. <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2020.01570>
- Meneses, Julio; Barrios, Maite; Bonillo, Albert; Cosculluela, Antoni; Lozano, Luis Manuel; Turbany, Jaume, & Valero, Sergi (2013). *Psicometría*. Editorial UOC.
- Mestre, Vicente; Frías, Dolores; Samper, Paula, & Tur, Ana (2002). Adaptación y validación en población española del PROM: una medida objetiva del razonamiento moral prosocial. *Acción Psicológica*, 3, 221-232. <http://e-spacio.uned.es/fez/eserv/bibliuned:AccionPsicologica2002-numero3-0001/Documento.pdf>
- Mikulic, Isabel María; Crespi, Melina, & Radusky, Pablo (2015). Construcción y validación del inventario de competencias socioemocionales para adultos (ICSE). *Interdisciplinaria*, 32(2), 307-329. <https://doi.org/10.16888/interd.2015.32.2.7>
- Nicolás, Catalina, & Rubio, Alicia (2018). Características cognitivas del emprendedor social en España. *Acciones E Investigaciones Sociales*, 38, 153-176. https://doi.org/10.26754/ojs_ais/ais.2018382980
- Paez, Javier, & De-Juanas, A (2015). Validation of «Schwartz Values Scale» for spanish adolescents population. *Procedia-Social and Behavioral Sciences*, 165, 195-201. <https://doi.org/10.1016/j.sbspro.2014.12.622>
- Penuel, William; Riedy, Robbin; Barber, Michael; Peurach, Donald; LeBouef, Whitney, & Clark, Tiffany (2020). Principles of Collaborative Education Research With Stakeholders: Toward Requirements for a New Research and Development Infrastructure. *Review of Educational Research*, 90. <https://doi.org/003465432093812.10.3102/0034654320938126>
- Peredo, Ana María, & McLean, Murdith (2006). Social entrepreneurship: A critical review of the concept. *Journal of World Business*, 41(1), 56-65. <https://doi.org/10.1016/j.jwb.2005.10.007>
- Proto, Eugenio; Rustichini, Aldo, & Sofianos, Andis (2019). Intelligence, Personality, and Gains from Cooperation in Repeated Interactions. *Journal of Political Economy*, 127(3), 1.351-1.390. <https://doi.org/10.1086/701355>

- Rasipuram, Sowmya, & Jayagopi, Dinesh Babu (2020). Automatic multimodal assessment of soft skills in social interactions: a review. *Multimedia Tools and Applications*, 79(19), 13.037-13.060. <https://doi.org/10.1007/s11042-019-08561-6>
- Sandin, Bonifacio; Valiente, Rosa. M; Chorot, Paloma; Olmedo, Margarita, & Santed, Miguel. A (2002). Versión Española del cuestionario EPQR-Abreviado (EPQR-A) (I): Análisis exploratorio de la estructura factorial. *Revista de Psicopatología y Psicología Clínica*, 7(3), 195-205. <http://revistas.uned.es/index.php/RPPC/article/viewFile/3933/3787>
- Schwartz, Shalom H. (2003). A proposal for measuring value orientations across nations. *Questionnaire package of the European social survey*, 259(290), 259-319.
- Schwartz, Shalom H. (2012). An overview of the Schwartz theory of basic values. *Online Readings in Psychology and Culture*, 2(1). <https://doi.org/10.9707/2307-0919.1116>
- Schwarzer, Ralf, & Jerusalem, Matthias (1995). Generalized Self-Efficacy scale. In J. Weinman; S. Wright & M. Johnston (argtz.), *Measures in health psychology: A user's portfolio. Causal and control beliefs* (35-37. or.). NFER-NELSON.
- Selznick, Benjamin S., & Mayhew, Matthew J. (2018). Measuring Undergraduates' Innovation Capacities. *Research in Higher Education*, 59(6), 744-764. <https://doi.org/10.1007/s11162-017-9486-7>
- Shoreman-Ouimet, Eleanor, & Kopnina, Helen (2015). Reconciling ecological and social justice to promote biodiversity conservation. *Biological Conservation*, 184, 320-326. <https://doi.org/10.1016/j.biocon.2015.01.030>
- Silva, Helena; Caravau, Hilma; Amorim, Marlene, & Dias, Marta F. (2016). Social entrepreneur: Does literature match reality? In Alexandra Zbucea & Dimotrios Nikolaidis (argtz.), *Responsible entrepreneurship visio, developement and ethics* (199-209. or.). Comunicari.ro.
- Thiele, Lisa; Sauer, Nils Christian, & Kauffeld, Simone (2018). Why extraversion is not enough: the mediating role of initial peer network centrality linking personality to long-term academic performance. *Higher Education*, 76(5), 789-805. <https://doi.org/10.1007/s10734-018-0242-5>
- Tierney, Pamela, & Farmer, Steven. M. (2002). Self-efficacy: Its potential antecedents and relationship to creative performance. *Academy of Management Journal*, 45(6), 1.137-1.148. <https://doi.org/10.2307/3069429>
- Tseng, Hungwei; Yi, Xiang, & Yeh, Hesin-Te (2019). Learning-related soft skills among online business students in higher education: Grade level and managerial role differences in self-regulation, motivation, and social skill. *Computers in Human Behavior*, 95, 179-186. <https://doi.org/10.1016/j.chb.2018.11.035>
- Valtonen, Teemu; Hoang, Nhi; Sointu, Erkki; Näykki, Piia; Virtanen, Anne; Pöysä-Tarhonen, Johanna; Häkkinen, Päivi; Järvelä, Sanna; Mäkitalo Kati, & Kukkonen, Jari (2021). How pre-service teachers perceive their 21st-century skills and dispositions: A longitudinal perspective. *Computers in Human Behavior*, 116, 106.643. <https://doi.org/10.1016/j.chb.2020.106643>
- Volk, Stefan; Thöni, Christian, & Ruigrok, Winfried (2011). Personality, personal values and cooperation preferences in public goods games: A longitudinal study. *Personality and Individual Differences*, 50(6), 810-815. <https://doi.org/10.1016/j.paid.2011.01.001>
- Yu, Chuapeng, Ye, Baosheng, & Ma, Shenghui (2021). Creating for others: linking prosocial motivation and social entrepreneurship intentions. *Management Decision*, 59(11), 2.755-2.773. <https://doi.org/10.1108/MD-06-2019-0815>

- Zhao, Hao; Seibert, Scott, & Hills, Gerald (2005). The mediating role of self-efficacy in the development of entrepreneurial intentions. *Journal of Applied Psychology*, 90(6), 1.265-1.272. <https://doi.org/10.1037/0021-9010.90.6.1265>
- Zhou, Kai (2017). Non-cognitive skills: Potential candidates for global measurement. *European Journal of Education*, 52(4), 487-497. <https://doi.org/10.1111/ejed.12241>
- Zubizarreta, Miren, & Aritzeta, Aitor (2015). The Development of the Entrepreneurial Culture. In N. Van Hattum-Janssen, R.M. Lima, D. Carvalho, S. Fernandes, R.M. Sousa, F. Moreira, A. Alves, *et al.* (argtz.), *PAEE 2015 International Symposium on Project Approaches in Engineering Education* (420-427. or.). Department of Production and Systems - PAEE association. http://paeaeale.unb.br/_upload/PAEE2015_proceedings.pdf